

BASTARDA

Performance-ko taldea

Bastarda ikaskuntzako, sormeneko eta erakusketako tokia da eta **Bilbon performance-en sorkuntza bultzatzeko** desiotik sortu da. Beren performance-proiektuak dituzten 10 lagunek bost tailer trinko egingo dituzte idazketa-gorputza abiapuntu duen ibilbidean. Ondoren, mugimendua eta tresna eszeniko batzuk egingo dituzte eta, amaitzeko, sortutako proiektuen erakustaldi publikoari begira, koordinazio eszenikoko ariketa egingo dute abenduaren hasieran eta, zehazki, Karpintería izenekotik antolatuko dugun “DeMuestra Bastarda”n. *Bastarda* arte zintzoa, askea eta esperimentalak ahalbidetuko dituen eguneroko tokia eta irisgarria izango da. Prozesuan laguntzaile izango dira artista hauek: María Cruz Planchuelo, Jazmina Fuentes, Ramón Churruca, Blanca Ortiga, Magmadam eta Espe López.

Tailer trinko bakoitza lan pertsonalak sortzeko garapenera zuzenduta egongo da. Partaide bakoitzak bere performancea sortuko du tresnen aukera heterogeneoarekin eta bideratzaileekin.



XEHETASUNAK

-Plazak

10 pertsona/proiektu

-Tailer trinkoen ordu kopurua:

68 ordu

-Erakustaldi publikoko ordu kopurua:

10 ordu abenduaren 3ko eta 4ko astean.

-Laguntzailearekin egin beharreko tutoretzako orduak:

Kasu bakoitzean adostu beharrekoa.

-Datak:

>> irailak 19 eta 20

Gorputza eta idazketa >> Jazmina Fuentes eta Maria Cruz Planchuelo

>> urriak 3, 4, 17 eta 18

Sorkuntza eta begirada eszenikoa >> Blanca Ortiga

>> urriak 24 eta 25

Performance >> Ramón Churruca

>> azaroak 7

Soinu-arte esperimentalala >> Magmadam

>> azaroak 28 eta 29

Koordinazio eszenikoa >> Espe López

>> abenduak 3 eta 4 >> DeMuestra Bastarda

-Ordutegia:

Larunbata 10:00 - 14:00 eta 15:00 - 19:00 eta igandea 10:00 - 14:00

-Lekua:

Histeria Kolektiboa. Cortes kalea 29-31, 4ºF 48003 Bilbo.

www.histeriak.org

-Izen-ematea:

200 €

(Talde eta erakusketarako aurrekontuaren gainerakoa Eusko Jaurilaritzak Histeria Kolektiboari #Karpinteria 2015 programarengatik emandako laguntzatik etorriko da.

-Izen-emateko azken eguna:

2015eko irailaren 15a

Parte hartu nahi izanez gero, idatzi posta elektronikoa info@histeriak.org helbidera honako gai honekin: Bastarda. Taldean plaza egiaztatu ahal izateko, inskripzioaren diru-sarrera egin behar da honako kontu honetan: ARQUIA 3183 4800 51 0001227790. Kontzeptua: Bastarda_Zurelzena

Taldean parte hartuko duten pertsonen egitasmo zehatz baten ideiarekin etorriko dira, eta prozesu honetan zehar garatu beharko dute. Eraitza-lana (pieza edo prozesua) #Karpinterian eta Almazan Biltegian aurkeztuko da performance-arteari eta tokiko kultur sektoreko eragileei buruzko erakusketa eta elkarrizketaren testuinguruaren barruan.

Taldearen modulu bakoitza eskaintzen duten pertsonen askatasun osoa izango dute edukiak eta metodologiak garatzeko. Premisa bakarra da ordu horiek partaide bakoitzak dakarren egitasmo eszeniko edo performancea akuilatzen, inspiratzeko eta aurrera egiten laguntzeko izatea, prozesuaren bereizgarriak ahaztu gabe. Izan ere, moduluak prestakuntzarako nahiz sorkuntzarako momentuak dira, eta "DeMuestra Bastarda" barruan egingo den erakusketarekin amaituko dira.

Horrexegatik, modulu bakoitzaren orduz gain, bideratzaileek, egoki baderitzote, egitasmo bakoitzaren sorkuntza-behar zehatzei erantzun ahal izango diete.



Irudia: Eneritz García

TAILERREN DESKRIBAPENA

MARIA CRUZ PLANCHUELO ETA JAZMINA FUENTES

Gorputza eta idazketa. 12 ordu.

Irailak 19 eta 20

Larunbata 10:00 - 14:00 eta 15:00 - 19:00 eta igandea 10:00 - 14:00

Gure gorputza eta eskaintzen dituen aukerak zein diren ezagutzean datza lana.

Barrutik kanpora eta kanpotik barrura antzematea, bizitzaz betea, adierazpen-gaitasun erabatekoarekin.

Geure burua deskubritu.

Tailerrak ezagutza horretara hurbildu nahi gaitu modu esperimental, partaidetzazko nahiz sortzailean, BMC teknikan integratutako hainbat proposamenen bidez.

Body-Mind Centering (BMC) bizipen-anatomiako metodo bat da; Bonnie Bainbridge Cohen kinesiologo eta dantzariak sortu zuen; haren oinarria da sistema fisiologiko askotarikoetan eta oinarrizko patro neurologikoetan hasitako mugimendua deskubritzea eta bizitzea. Eta horretarako printzipio anatomiko eta bilakaerazko garapeneko printzipioak aplikatzen ditu.

BMCak mugimendura, ahotsera eta kontaktura jotzen du gorputzeko jardueraren maila baxuenen arteko harreman dinamikoa (esperientzia zelularra) eta mugimendu espaziala arakatzeko. Adimena gorputzaren bidez eta alderantziz nola espresatzen den ulertzera bideratua dago metodoa; aldaketak eragin nahi ditu adimen/gorputz harreman horretan. Dantzan, gorputz-lanketan, psikoterapian, masoterapian, terapia fisiko eta okupazionalan, meditazioan, yogan eta gorputza eta adimena integratzen duten beste diziplina batzuetan erabiltzen da, taldeko entrenamendu edo eskoletan eta norbanako saio edo tratamenduetan.

Ezagutza horrek efektu psikofisiko sakona du gure mugimendu eta alineazioan, gure antolakuntza- eta komunikazio-gaitasunean eta gure adierazpen- eta sormen-ahalmenen garapenean.

BIOS

Jazmina Fuentes Moreno

Filologia Hispanikoan lizentziatua Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. Bokazioz eta gizarte konpromisoak hala eskatuta, irakasle da, gaztelaniako hizkuntza eta literaturako eskolak eman zituen, behin-behineko irakasle gisa, Madrilgo komunitate osoan zortzi urtez. Biziki bizi, ikasi, gozatu eta sufritu zuen, eta horren ostean erabaki zuen, arrazoi ugari eta garrantzitsuak tarteko, lanpostuari uko egin, eta bizitzari aldaketa bat ematea. Ekintzaile feminista eta Hezkuntzako espezialitatean Masterra du Generoko Diziplinarteko Ikasketetan Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Akademiaren barruan egindako ikerkuntza-lana genero ikuspegiko Hezkidetzaren

eta Literaturaren Didaktikaren esparrura mugatu da, bereziki, Espainiako Literaturaren Historia irakasteko material didaktikoak eta jarduerak diseinatzeko. Horretarako metodologia ez tradizionalak izan ditu abiapuntu, horiexek garrantzi erabatekoa ematen baitiote balio demokratikoen hezkuntzari, eta ikasleengan pentsamendu kritikoa eta partaidetza aktiboa sustatzen baitute. Generoan aditua izanik, emakumeen ahaldunderako hainbat tailer diseinatu eta garatu ditu Madrilgo Maria Maeztu Berdintasun Zentroan, eta baita Cuenca eta Madrilgo nekazaritza-guneetako emakume elkarteei zuzendutako hitzaldiak ere.

Egun, emakumeentzako idazketa-ikastaroak eskaintzen ditu La Cabreran, eta Genero Ikasgela eta Uniposibleko (Madrilgo Iparraldeko Mendilerroko Herri Unibertsitatea) generoari buruzko gaien ikaskuntza kolektiboko taldea koordinatzen ditu.

María Cruz Planchuelo López
www.maricruzplanchuelo.com

Eszena-sortzailea eta dantzako irakaslea. Graduondokoa du “Dantzaren Joera Garaikideetan”. Prestakuntza somatikoa, Erritmoko Jaques-Dalcroze ziurtagiria, psikomotorreko teknikaria, Madrilgo “Teatro de la Danza” Arte Dramatikoa eta Eskulturaren Arte Aplikatuak.

2002an, Amsterdamen, Katie Durk diru-laguntza jaso zuen. Sorkuntza irakasle-lan eta kultur kudeaketarekin konbinatzen ditu. [Masuno](#) en Escena 2009-12ren koordinatzaile izan zen. Hainbat konpainiarekin lan egin du, eta lankidetzan dihardu. “[The Winged Cranes](#)” plataformako kide da.

Irakasle gisa, inprobisazio-tailerrak egin ditu Espainian eta Hego Amerikan. 2003tik Carlos III unibertsitatean lan egiten du, eta 2011tik ISEP Musika-terapia Masterrean. 2009tik aurrera, Madrilgo iparraldeko mendilerroan finkatu zen, eta hezkuntza- eta arte-egitasmoak sortu zituen: www.danzacreativamadrid.blogspot.com

BLANCA ORTIGA

Sorkuntza eta begirada eszenikoa. 24 ordu.

Urriak 3, 4, 17 eta 18.

Larunbata 10:00 - 14:00 eta 15:00 - 19:00 eta igandea 10:00 - 14:00

Multi-task ariketen kontzientziatik abiatutako prozesuak laguntzeko gunea da; egun hor kokatzen dira sortzaileak.

Horretarako, eszena eraikitze eta begirada lantzeko tresnak proposatuko dira; praktika eszeniko garaikideak aztertuko dira; mugako elementuak behatuko dira ahalik eta etekin handiena ateratzeko; euskarri eta gailuekin jokatu da, eta sorkuntza-prozesua biltzen duten elementu guztiak berrikusiko dira. Horiek guztiak gu geu indartu, iruditeria elikatu eta norbere hizkuntza garatzeko asmoarekin egingo dira.

Horretarako abiapuntua asaldura eta aukeren ugaritasuna dira.

BIO

Sortzaile Berrien Zentroan, Zientzia Politikoetan eta Arte Ederretan egin zuen prestakuntza. Praktika eszenikoak beti ikerkuntza-ildoan egiten ditu, identitateei buruz eta desberdinen bitartez eguneroko hiper-errealitateen azterketa kritikoei buruz.

Sortzaile gisa, 2009an ekin zion ekoizpenari; ["IN.SOLITA", "DISTÓPICAS", "PRIVATE PROPERTY" eta "TEXTURAS Y CICATRICES", "aPnea"] haren ekoizpenak jaialdi eta arte garaikideko hainbat museotan aurkeztu dira, eta nazio mailako nahiz nazioarteko arte-egituren babesa jaso dute.

Beste artista eta kolektibo batzuekin etengabe lankidetzan aritzeaz gain, aktibismo eszenikoaren esparruan inplikazio handia du; live art alorrean ikerkuntza-ildo feministekin lotuta dago, eta ildo kooperatibista sortzailearekin, [Guerrilas Cotidianas](#) plataforman.

Bitartekari gisa, arte bizi, dialektiko eta ikusmenezkoen programak garatzen eta sustatzen ditu. Elkarguneak sortzeko, sareak ezartzeko eta ehun artistikoa garatzeko interesa du; arreta berezia eskaintzen die larrialdi eszenikoen babesari eta tokiko eta nazioarteko artisten loturei.

RAMÓN CHURRUCA

Performance. 12 ordu

Urriak 24 eta 25

Larunbata 10:00 - 14:00 eta 15:00 - 19:00 eta igandea 10:00 - 14:00

Selfie Nartzisistaren Aroa.

Artista Zaharkitua.

Gizon Analogikoa.

Adineko gizona.

ZAHARBURUSOILEROITSUSIARRAROPIJOPASTILAZALEA.

BIO

Doug Hall-en lanak eraginda, 20 urterekin Estatu Batuetara joan zen zinema esperimentalak ikastera San Franciscoko Art Institute-n; performance/bideo alorrean lizentziatu zen. Hiri hartan egoteak erabat ireki zion burua. Izan ere, Ramonek deskubritu zuen gizarte-kosten sistema errepikatu egiten dela artearen munduan. "Ustez liberalak diren mundu horiek oso itxiak dira". Ideia hori konstante bat izango da artistaren lanean.

Ramon Churruca Euskal Herriko performance-diziplinako adierazgarri nagusienetariko bat da. Gai honi eskainitako urteak eta artistaren karisma pertsonalak eragin dute haren gorputz, hizkuntza, ideiak eta helburuak sorkuntza-ibilgailu izatea ekintza eta transmisio konpultsiborako. Izan ere, Churruca bertsolariaren tankera handia du; gaia aukeratzen du; eszenatokia bilatu, eta ideiak zizelkatzen hasten da. Flamenko-kantarien antza ere badu, kontzertuak aurrera egin ahala berotzen joaten baita; klimaxera heltzen da une gorenean, eta inoiz ez dago jakiterik nola eta noiz bukatuko duen. Kritikoa beti inguruko botere-sistemekin; mina ematen duen lekura egiten du tiro; ez du ahoan bilorik. Artista honen ekintza batean egotea, sorkuntzaren maila gorena eta katartikoa ikustea da.

MAGMADAM

Soinu-arte esperimentalak. 8 ordu

Azaroak 7

Larunbata 10:00 - 14.00 eta 15:00 - 19:00

<http://cargocollective.com/magmadam>

Tailerrerako proposamena gorputza eta soinua arakatzea eta ikertzea da. Soinua lantzea bestelako parametroetatik baina musikarekin zerikusia izanik; energiarekin, haren igarotzearekin eta arrastoaren eraginarekin eta bat-egitearekin jolastea. Ekintza eta erreakzioa inprobisaziotik eta inprobisazioraino arakatzea, eta baita eraikuntza, egitura eta gertuko ikus-entzunezko ingurunea ere. Era berean, gogoan izatea aurrez ezarritako formak, generoaren rola eta estandar soziokulturalak deseraikitzea, zalantzan jarrita gizarteak aurretik zehaztutakoa.

Soinua arakatzea, materia, testura eta gorputzetik, akatsaren erabilera sortzailea egitea, osagai bat gehiago balitz bezala.

Elementu gisa erabiliko ditugun musika-tresnak eta soinu-iturriak honakoa hauek izan daitezke: kalean bertan egindako grabazioak, erregistroak in situ, perkusioa, sintetizadoreak, efektu anitzak, ahotsak eta gorputza bera.

BIOS

Itziar Markiegi

Soinuak sortzen eta manipulatzeko arakatzailerak, kalean bertan hainbat grabazio deskontestualizatzen dituzten honako hauen bidez: inprobisazioa eta akatsaren erabilera sortzailea, zorizkoa dena eta gorputza tresna sortzaile aktibo gisa. Zarata-sortzaile plastikoa, marrazkilari/inprobisatzaile, Baba-Llaga, Anorexia Mental eta SEXtoD-ko kide, eta bakarka Jana Jan eta TetaFX gisa. Kolaborazioak eta soinu-inprobisazioak egiten dituzten hainbat artistarekin: Lapidación Láser, Shu LeaCheang, Zer duzu Amy?, Ibai Labegaren desfileetan; Ertz, MEM, ZarataFest, T-Festa eta bestelako jaialdi batzuetan, eta Club Le Larraskito bezalako espazioetan.

Myriam Petralanda

Perkusio eta bateria-jole eta sortzaile autodidakta. Taldeetan integratuta edo musikari aktiboekin lan egiten dut beti. Hastapenetan, rock-pop estilo zabaleko tokiko hainbat taldeetan aritu nintzen, 1993tik. 2006tik Gora Japon taldeko kide naiz Jon Mantzidor musikari sortzailearekin batera; inprobisazioa eta esperimentazioa garatu ditugu musika/soinu esparru zabalean, hainbat testuingurutako kontzertu ugarian. Lankidetzan aritu naiz askotariko sortzaile/musikari/artistarekin: Janire Salvador (Rabid harpy/Nadass), Raketa Brokovitx, Asier Etxeandia, Rober! (Atom Rhumba), Miguel A.

Garcia (xedh), Oleg Soulimenko, Itziar eta Itxaso Markiegi, Idoia Zabaleta, Carla Fernández, Unai Kerexeta, Inazio Escudero edo El Monstruito, eta baita sartu-irten txikiak eszena-esparru eta performance-ekintzatan ere.

ESPE LÓPEZ

Koordinazio eszenikoa. 12 ordu.

Azaroak 28 eta 29.

Larunbata 10:00 - 14:00 eta 15:00 - 19:00 eta igandea 10:00 - 14:00

Prozesuan zehar sortutako piezen koordinazio eszenikoa landuko dugu. Performanceek izango duten azken bertsioan sakonduko dugu, eta baita aurkezpen-hurrenkeran eta trantsizioetan ere.

BIO

Espe López aktorea eta antzerki “aktibista” da, askotariko antzerki-egitasmoak egin ditu, baina modu jarraituagoan Oscar Gómezek zuzentzen duen L'ALAKRAN Suitzako konpainian. Ibilbide profesionalari LEGALEON-T Teatro-rekin ekin zion; Txubio Fernadezekin batera berpizten saiatu zen konpainia. Eurovision eta denboran eta espazioan bizirauten duten hainbat gauza surrealista baino luzeago bizi nahi du; desafio egin nahi die fisika kuantikoaren legeei. Hainbat prestakuntza-tailer koordinatu ditu performancearen eta emakumearen alorrean, eta eszenaren zentzu bizi eta aktiboa du.

DeMuestra Bastarda

Abenduak 3 eta 4 (arratsalde/gaua)

- 10 Bastarda egitasmoen erakusketa.
- Elkarrizketa irekiak laguntzaile eta parte-hartzaileekin nahiz beste eragile, sortzaile eta publiko batzuekin (behin betiko programa azaroan jakingo dugu; horri buruzko ekarpenen bat egin nahi baldin baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan).
- Bastardako emaitzen egitasmo-aukeraketa bat 2016ko ekainean ikusi ahal izango da Bilbon, BLV ART hiriko artearen jaialdian.